

BATASUNARI BAI

Gure herriaren nazio-pizkundea aurrera doa. Eta geuk baino hobeki dakite hau gure etsaiek. Hauen jokabidea, horregatik, gero eta gogorragoa da; baina gero eta maltzurragoa ere bai. Eta azken hau gure arteko koittau batzuk ez dute sinistu nahi, eta edozein amu iresten dute xeru-xeru. Zenbait euskal taldetan dagoen saltsan ez dute ideia-gorabehera hutsak baizik ikusi nahi; etsai etsiaren jokoa jatorra eta garbia balitz bezela...

Alde betetik, hau bai, zanpabidea betikoa da, eta politika-mailan egiten da : gartzela, tortura, atzerrira uxatzea, eta abar. Ez dira, dana dala, erakunde guziak jazartzen : abertzale ez diran erakundeek ez dute jipoiaren laurdena ere jasotzen. Eginkizun hits hortan, Frantzia'ko gobernu, ondikotz, España'koaren kide gisa, lanean ari ikusi dugu joan dan Irailan; etsaia eta arriskua euskal abertzaletasuna baita, bai Hegoaldean bai Iparraldean.

Beste alde batetik, euskal nazio-kultura da desegin-baharra; gure hizkuntza erauziz, sustrairik gabez ihartu eta hil egingo bailitzake gure herria. « JAKIN » euskal aldizkaria, beharbada intelektual mailan gaur arte agertu dan onena, debekatua izan da. Ikastolen bultzada, han eta hemen, nola edo hala geldiaraztekotan, edozein aitzekia da on : osasun baldintzak, lekurik eza, eta abar.

Hirugarrenik, gu geure helburutik baztertzeke egiten du saioa etsaiak behin eta berriz. « Divide ut vinces ». Jokabidea agiri xamarra da, halere : beste helburu bat, *edozein*, gorago eta premiatsuago jartzea gure nazio-askatasunarena baino; eta hemendik edo handik abertzale geranok zatitzea eta elkarrekiko etsaitzea. 1931-ean erlijioa izan zan aitzekia; 1969-an supergorriena, klasitis deritzakegun eritasuna, ezkerkeria. Ez dezagun, ordea, fenomenoen itxura ikus, ondorioa baino; eta ondorioa, orduan eta gaur, hauxe da : nazio-pizkundeari ez, eta español. Abertzale berriz inolaz ere ez : ez ezker aldetik, ez eskubitik. baina español; sozialista bai, baina español; komunista bai, baina español, Abertzale berriz inolaz ere ez : ez ezker aldetik, ez eskubitik. « Taktika »rengatik, azkenean beti bat : España'ko markoan, españolekin bat eginik.